

**ERABAKIA, 2021eko AZAROAREN 25koa, UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEAREN, 2021-2023 TARTERAKO ESPAINIAKO UNIBERTSITATE SISTEMA BIRKUALIFIKATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA, EUROPAR BATASUNAK (NEXT GENERATION EU UNIBERTSITATE SISTEMA ESPAINIARRA BIRKUALIFIKATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA) FINANTZATUTA, BEHIN BETIKO ERABAKITZEN DUENA.**

2021eko uztailaren 2an, Espainiako unibertsitate sistema 2021-2023rako birkualifikatzeko laguntzen deialdia argitaratu zen Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean, Europar Batasunak (Next Generation EU) finantzatuta.

Eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, 2021eko azaroaren 4an, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web atarian emandako eta ukatutako eskabideen behin behineko erabakia argitaratu zen eta 10 egun balioduneko epea eman zen kontratua bertan behera uzteko eta alegazioak aurkezteko.

Epe hau iraganik, alegaziorik aurkeztu ez denez, azaroaren 25eko bileran, Epaimahaiak, behin betiko erabakia egiteko proposamena helarazi dio Ikerketaren arloko errektoreordeari, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web gunean argitaratzeko.

Horregatik guztiagatik, honako hau

#### ERABAKI DUT

**Lehenengoa.-** Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako I. eranskinean jasota dagoena lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta.

**Bigarrena.-** 2021eko abenduaren 15etik 30era bitarteko epea irekitzea, hautatutako pertsonen Ikerketaren arloko Errektoreordetzan aurkez ditzaten eskatutako agiriak.

**Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da dirulaguntzari uko egiten zaiola.**

**Hirugarrena.-** Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

**Laugarrena.-** Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilia:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita

(Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2021eko azaroaren 25en.

Inmaculada Arostegui Madariaga  
Ikerketaren Arloko Errektoreordea  
Vicerrectora de Investigación

**I. ERANSKINA**  
**EMANDAKO ETA UKATUTAKO ESKAEREN BEHIN BETIKO EBAZPENEA**

KODEA	NAN	PUNTUAZIOA GUZTIRA	BEHIN-BETIKO EBAZPENEA
RECUALI21/03	18594384B	98,0	EMANDAKOA
RECUALI21/14	50103771L	97,6	EMANDAKOA
RECUALI21/06	34108737J	97,6	EMANDAKOA
RECUALI21/05	44140452W	96,4	EMANDAKOA
RECUALI21/16	72719063D	95,6	EMANDAKOA
RECUALI21/17	18598336F	95,6	EMANDAKOA
RECUALI21/18	18598965S	95,6	EMANDAKOA
RECUALI21/01	16086478W	95,2	EMANDAKOA
RECUALI21/12	44565326C	94,4	EMANDAKOA
RECUALI21/11	44141095R	94,0	EMANDAKOA
RECUALI21/07	30646591B	94,0	EMANDAKOA
RECUALI21/04	72757077G	92,0	EMANDAKOA
RECUALI21/08	14260878G	92,0	EMANDAKOA
RECUALI21/09	78936707V	89,0	EMANDAKOA
RECUALI21/02	72489244Y	84,8	EMANDAKOA

### III. ERANSKINA

## UPV/EHU<sub>n</sub> AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Esleipendunek honako dokumentazio hau bidali beharko dute [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus) helbide elektronikora, pdf formatuan, 2021eko abenduaren 15etik 30era bitarteko epean:

- a) Deialdi honen esleipendun gisa betekizunen onarpen dokumentua.
- b) Lanean hasi delako agiria, helburu duen unibertsitateak edo ikerketa-zentroak baliozkotua eta lanean hasiko den data zehatza daukala. **Dokumentu hau hasi ondoren entregatuko da.**
- c) Laguntzari dagokion IP Errektoreordetzaren Behin-Betiko baimena, hau da, Irakasle-Ikertzaileen Arloko Errektoreordearen lizentziaren erabakia.

**Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da dirulaguntzari uko egiten zaiola.**

Erabili beharreko ereduak errektoreordetzako webgunean egongo dira eskuragarri ("Dokumentuak" izeneko erlaitzan). **Abenduraren 15etik aurrera eskuragarri izango dira.**

Dokumentazioa aurkezteari eta kontratazio prozesuari buruzko kontsultak [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus) helbide elektronikora bidali behar dira.